

LH-KO 3.EKO BANAKAKO EBALUAZIOA 2015-16 ikasturtea

Jarduketan protokoloa

Uztailaren 16ko 60/2014 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duenak, 11. artikuluan agintzen duenaren arabera, Lehen Hezkuntzako hirugarren ikasmaila amaitzean ikasle guztiei banakako ebaluazioa egiten diete ikastetxeek. Horren bidez, ahozko eta idatzizko adierazpenean eta ulermenean, kalkuluan eta problemak ebaztean behar diren trebetasunak, ahalmenak eta abileziak zer mailatan menderatzen dituzten egiaztatuko da, hizkuntza komunikazioko gaitasunaren eta matematika gaitasunaren eskuratzeko mailarekin loturik.

Bestetik, ekainaren 18ko 276/2015 Ebazpenak, ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua arautzeko jarraibideak onesten dituenak, xedatzen du ebaluazio honetan kanpoko probak izanen direla oinarritzko gaitasun hauek ebaluatzeko:

- Hizkuntza gaitasuna: irakurmena eta idazmena, gaztelaniaz zein euskaraz, ikasten ari den hizkuntza ereduaren arabera.
- Matematikako gaitasuna: kalkulua, arrazoibidea eta problemen ebazpena.
- Ingeleseko hizkuntza gaitasuna.

Aurreko ikasturtean ez bezala, 2015-16 ikasturtean LHko 3.eko banakako ebaluazioaren probak ikastetxeen eskura paratuko dira Departamentuaren webguneak (<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad>), PDF formatuan zein Word formatuan, eta ikastetxeek autonomia izanen dute horiek aplikatzeko, moldatzeko (handitzeko, egokitzapen metodologikoak egiteko, etab.), egutegia antolatzeko, zuzentzeko, emaitzak aztertzeko, etab. Datuak ez dira sartuko Educa aplikazio informatikoan. Ikastetxeek erabaki horiek hartuko dituzte, aintzat izanik ebaluazio honek prestakuntza eta orientazio izaera duela, eta ikastetxean aurrera eramaten dituzten ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuen barnean txertatuko dute.

Hobekuntza Planaren esparruan, ebaluazio honetan ikasleek lortutako emaitza orokorrekin zein tratamendu eman ere erabakiko dute ikastetxeek eta, behar den hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatuko dituzte.